



Lanerako bidea

Emakumezkoak ikasketa teknikoetan izena ematera gonbidatu dituzte / 5



Itsaso Lopez Aguado altsasuarra. UTZITAKOIA

"Madrilen denetarik egon da; egoera berezia izan da"

ITSASO LOPEZ AGUADA MADRILEN BIZI DEN ALTSASUARRA

Espainiar estatuko lehenengo kasuak Madrilen izan ziren. Osasun krisialdia oso larria izan zen bertan. Hala ere, bertako politikariak beste arrazoiengatik izan dira protagonistak

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU
2013an Madrilera master bat ikastera joan, eta bertan bizitzen gelditzea erabaki zuen Itsaso Lopez Aguado altsasuarrak. Koronabirusaren krisian Madril

gune informatibo garrantzitsua izan da, alde batetik, espainiar estatuko kasu gehienak bertan eman direlako eta, bestetik, Madrilgo politikariek zer esan handia eman dutelako. Birusaren

eragina handia izan denez, astelehenean sartu ziren lehen fasean, Nafarroa bigarren fasean sartu zenean.

Zer dauka Madrilek bertan bizitzen gelditzeko erabakia hartzeko?

Sormen Literaturako Master bat ikastera etorri nintzen. Urte bat pasa ondoren, lana bilatzea eta hemen geratzea erabaki nuen. Madril aukera pila bat dituen hiria da.

Espainiar estatuko koronabirusaren lehenengo kasuak Madrilen eman ziren. Nolakoak izan ziren lehenengo egun horiek? Noiz konturatu zineten zerbait gertatzen ari zela?
Lehendabiziko egun horiek batez ere ziurgabetasun handiko egunak izan ziren. Gogoan dut urrutiko zerbait bezala ikusten genuela; Madrila koronabirusa iritsi zitekeela sinestuko ez bagenu bezala. Jendea urduri samar zegoen. Lehenengo kasua diagnostikatu zenean, otsailaren 16an gutxi gora behera, Google Maps aplikazioak alerta bat jarri zuen Covid-19a Madrilera iritsi zela adieraziz. Bitxia izan zen. Hortik aurrera, denok ezagutzen dugu istorioa.

Zein zen giroa?

Nire enpresan aste bat lehenago bidali gintuzten etxera. Salbuespen egoera eta konfinamendua ezarri aurretik telelana egiten hasi ginen. Dagoeneko susmoa zegoen zerbait larria eta guztiz ezezaguna gertatzen ari zela. Giroa nahiko mugitua zegoen. Ilara galantak ikusten ziren supermerkatuetan eta beharrezko produktuak bukatzen hasi ziren, komuneko papera, alegia. Jendea beldur zela nabaritzen zen.

Orain zein da egoera?

Oraintxe egoera aldatu egin da. Argi dago jendea aurretik genuen bizitza berreskuratzeko irrikitan gaudela, eta, hori lortzea zaila izango den arren, behintzat etxetik ateratzeko, jendea ikusteko eta errutina berriro hartzeko gogoak ditugu.

Zer moduz eraman duzue konfinamendua?

Konfinamendua luzea izan da. Hala eta guztiz ere, modu batean edo bestean horrela bizitzera ohitu garela dirudi. Nik uste ondo eraman dudala, azkenean gustuko ditudan gauzak egiteko aukera bikaina izan da: asko irakurri dut, musika entzun dut, sukaldatu dut...

Jendeak errespetatu al du?

Denetarik egon dela uste dut. Azkenean, Madrilen dagoen biztanleria kontrolatzea oso zaila da. Uste dut oro har erantzukizun zibila pixka bat izan dugun pertsonak ondo egin dugula, hala ere, Tinderrekin etengabe egon diren ezagunak badituz. Salaketa asko ibili dira botiloi egiten diren inguruetan ere, eta auzokide edo balkoieta-konfinamendu honen gizartea zekenagoa bihurtuko duela dirudi.

Nola izan da Madril hutsik ikustea?

Egoera nahiko berezia izan da. Madrilen ohituta gaude, hiri handietan bezala, soinuarekin eta jendearen mugimenduarekin bizitzera. Hori izango litzateke hirien nortasuna. Birusarengatik hirian sustatzen den bizitza nolabait galdu egin da. Eta faltan botatzen dut. Hala ere, trafikoaren eta poluzioaren beharpena primeran etorri zaigu. Inoiz baino euri gehiago egin du, eta hori Madrilen oso arraroa da. Ez dakit. Hemendik aurrera gobernuek aztertu behar lukete hirien berregituratze zorrotz bat egitea, ekosistema berde eta ekologiko batean bizi ahal izateko eta poluzioa jaitsi ahal izateko. Orain Ayuso atera da esanez lurzoruaren legea berregitea nahi duela. Ezin dugu hori onartu, horrek esan nahi duelako espazio berde gutxiago egongo direla eta, beste alde batetik, lege horren berregituraketak 2008ko krisiaren hasiera gogorarazten duelako.

Nola aldatu zaizu bizitza?

Gehien aldatu zaidana etxetik lan egitea izan da. Azkenean, oso zaila izan da etxean zortzi ordu lan egiten pasatzea eta gero etxetik ezin atera ahal izatea. Behintzat, deskonexio tarte bat izatea beharrezkoa da. Arraroa izan da ere lagunekin pantaila baten bidez ikustea. Zorionez, teknologiaren bidez hiperkonektatuta gauden gizarte batean bizi gara; ez dakit nolako izango litzatekeen egoera hau duela 30 urte gertatu izan balitz.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com





Etxe pasiboetarako egokia



Isolamendu nukleo indartsua



Beirak lehorrean jarrita



Aparteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Isabel Diaz Ayuso, Madrilgo presidentea, eta Jose Luis Martinez Almeida, alkatea, albistegietako protagonistak izan ohi dira. Zer moduzkoa izan da Madrilgo administrazioaren krisiaren kudeaketa?

Desastre hutsa izan da. Zoritxar handia izan dugu Ayuso eta Almeidaren kudeaketarekin. Biak izan dira egunero eta etengabe protagonistak hartu dituzten erabakiengatik eta kudeaketa txarragatik. Zirku bat bezala izan da. Beraien politikarekin ez diete hiritarrei lagundu, konfrontazio politikoa erabili dute, alternatibarik eman gabe, Espainiako gobernuaren aurka egiteko. Herritarren osasuna alde batera utzi dute. Interesatzen zitzaiena egunkariko lehen orrialdean ateratzea zen. Iruzur handiak ikusi dira: Ifemako ospitalearen kudeaketa, Ayusoren apartamentua eta abar.

Lehen fasera pasatzearekin ere gora eta behera aritu dira. Nola bizi izan duzue egoera?

Alde batetik, Ayusok lehen fasera pasatzea eskatzen zuen eta, bestetik, osasun zerbitzuetatik oraindik goiz zela esaten zuten. Ayusoren aldetik etortzen diren informazio guztiak kontraesankorrak izan dira. Argi zegoen Madrilgo erkidegoa ez zegoela azpiegituren aldetik lehen fasera igarotzeko prestatuta. Azken finean, Madrilen kontzentratu dira koronabirusagatik hildako eta kutsatu gehienak. Ayusok esaten zuenaren arabera, ZIUetako oheak libre zeuden, baina osasun etxeetako lehen arreta emateko arazo handiak zeuden. Beste aldetik, Ayusok lehen fasera ez pasatzea erabaki zuenean, bere alderdiko goi-kargu politikoei esaten zuten Espainiako gobernuak dekretatu zuen alarma egoera herritarren erabateko kontrola izateko erabiltzen ari zela; haiek esaten dutenaren arabera, diktadura estali bat bihurtu nahi dute. Tarte horretan, beraz, Ayusok iritzia aldatu zuen eta lehen fasera pasatzeko baimena eskatu zuen. Horrek Madrilgo Osasun publikoaren zuzendariaren dimisioa ekarri du. Oso larria izan da.

Gainera, aurreko astean Salamanca auzoko manifestazioak izan ziren albiste. Nola bizi izan dituzue?

Lotsagarria izaten ari da. Pena handia ematen dit Madril bezalako hiri batean, aniztasun polita eta aurreratua dagoen hiri batean, hau gertatzea. Azkenean,



Madril hiria hutsik konfinamenduaren garaian. UTZITAKOA



Konfinamenduaren lehenengo egunetik trafikoa desagertu zen Madril. UTZITAKOA

albiste izaten ari da diruz gainezka bizi diren estatu mailako %0,2. Jende honen borroka, borroka deitu ahal bazaio, beraiek dituzten pribilegioak ez galtzea da, eta ez beraien eskubideak aldarrikatzea. Gorrotzen dut. Ezin dugu utzi jende hau Madril bizi garen gizartearen irudi bihurtzea; bereziki momentu txarrak bizitzen ari diren pertsonak daudenean. Krisi uneak historikoki oso kritikoa izan dira eskuin muturreko alderdiek bere diskurtso suntsitzaile eta populistarekin pentsamendu kritiko laburra duten pertsonengana iristeko. Nolabait jende horri ez litzaioke publizitate gehiago eman behar. Haien protesta guztiak me-me-etarako gaia bihurtu dira. Hala ere, gertaera hauek beldurra ematen didate. Uste dut, Covid-19aren inguruan eman diren heriotzak alde batera utziz, gertaera hauek krisiaren alde kaltegarrienak eta negatiboenak izan direla.

Azkenean lehen fasera pasatzen zarete. Nola jaso duzue albisteak?

Orain askatasun gehiago daukagula nabaritzen da. Jadanik konfinamendu osoa pasa dugu. Lehen fasera pasatu ahal izateak itxaropen apur bat ematen digu. Bi hilabetez ikusi ez duzun jendea ikustea oso zirrargarria da. Aldi berean, krisi mota honek bizitza gozatzeko eta maite duzun jendearekin partekatze delakonturatzeko eta balioesteko balio du.

"INTERESATZEN ZITZAIENA EGUNKARIKO LEHEN ORRIALDEAN AGERTZEA ZEN"

"LEHEN FASERA PASATU AHAL IZATEAK ITXAROPEN APUR BAT EMATEN DIGU"

"MUSEOETARA TURISTARIK GABE JOATEKO APROBETXATU NAHI DUT"

Zer egingo duzu lehen faseko lehenengo egunetan?

Lehen fasera lagunekin egotea nahi dut. Taberna edo etxe batean, berdin zait. Garrantzitsuena beraiekin egotea da, elkarrekin egotea. Momentu honetan tabernetako terrazak ireki dituzte segurtasun neurriak errespetatuz, baita terrazak dituzten jate-txeak ere. Horretaz gain, uste dut museoak irekiko dituztela, behintzat edukieraren %30arekin. Aprobetxatuko dut Pradotik edo Reina Sofiatik bueltatxo bat emateko. Gainera, turistarik gabe!

Familia hemen eta zu han. Nola bizi izan dituzu hemendik iristen ziren albisteak?

Okerrena familiarengandik urrun egotea izan da. Luze samar egiten ari zait Altsasura ez joatea eta familia ezin ikustea. Ziurgabetasun momentu hauetan beraiekin ezin egoteak ezintasuna sortzen du. Altsasura joateko irrikitan nago.

Etortzeko asmorik ba al zenuen?

Bai. Aste Santuko oporrak Altsasun pasatzea espero nuen eta asteburu honetan ere nire aitaren urtebetetzea ospatzeko joan behar nintzen. Nire gurasoak Madrilera etortzea pentsatu zuten ere. Reina Sofia museoan Mondrian artistaren erakusketa mustu behar zuten eta aitzakia horrekin etorri behar ziren. Orain denak itxoin beharko du.

Eta orain noiz aurreikusten duzu etortzea?

Ideiarik ez. Birusaren arabera izango da. Hala ere, nik uste dut uztailaren lehenengo asterako egongo naizela.

Koronabirusaren ondoren, zer etorkizun espero duzu?

Zaila da jakitea. Jadanik atzerapen ekonomikoki larriarri murgilduta gaude. Ziurgabetasunezko egoera konplexua bizitzen ari gara. Hemen gizartearen babesgabe dauden pertsonen lagundu beharko genieke. Uste dut lehen bizi genuen normaltasunera itzultzea oso zaila izango dela, baina egoera guztietara moldatu behar gara. Beldurgarria da pentsatzea eskuin muturreko alderdiak igogera bortitza izango duela, eta horrek esan nahi du gure askatasuna eta oinarriko eskubideak mugatu ahalko dituztela. Baina momentu honetan baikorrak izatea beharrezkoa da. Balioan jarri behar ditugu bizitzak ematen dizkigun gauza onak: esaterako, bidaiatzea eta familiarekin eta lagunekin disfrutatu ahal izatea.



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

Egunerokotasun berria

Maiatzeko zeru urdinera begira, enara artean marra zuri amaigabeak ageri dira berriro ere, ortzimugaren alde batetik bestera urdin zabal garbian. Aste luzeetan zehar, udaberriko bizi eztaudak bere azaletik kanpo mantendu ditu ke zikinen metal astun eta sufre aztarnak. Sakanako autobide zabala hutsik ikustea, inguruko kirkirren kantuak asfalto gainean entzutea, amets apokaliptiko baten barruan egotea bezala izan da. Gizaki gabeko planeta irudi. Naturak bere tokia birkonkistatzen uste baino azkarragoa dela ikusi dugu basaguneko biztanleen bisita ez ohikoek erakutsi diguten bezala. Ekonomiaren geldialdiak, lurrari arnas eman dio, bere birsortze gaitasuna erakusteko beta justua emanez.

Baina bagatuz berriro ere, errotarri erraldoi geldiezinaren martxa berriz harturik. Petrolioaren menpekotasuna duen jendarte arduratu eta presaduna berriz ere martxan da. Propaganda politikoak langileak lanera bidaltzen ditu. Turistak hegazkinetan igotzeko desiotan, nork zer azkarrago irekiko dabilta agintariak. Lasterketa zoro batean, nor azken

AMETS APOKALIPTIKO BATEN BARRUAN EGOTEA BEZALA IZAN DA

fasera lehenago iristean arduratuta, hildakoak ahaztu dituztela dirudi. Azken fasera iristean ordea, zer aurkituko ote dugu? "Egunerokotasun berria" deritzon egoera misteriotsua, nork bere eskubide eta askatasunak estu loturik irribarre estaliko kale

gainbegiratueta. Jairik gabeko udak, musikarik gabeko kontzertu aretoak, poliziak edonor edonon zigortzeko mehatxupean, azken orduko ohar zentzugabearen kontraktorik inork egin ez dezan. Gure aske izateko sena, zentzua eta borondatea ez ote dugu galduko!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne).
GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa.
 Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNA

Irauten

SAATS KARASATORRE MARTINEZ ETA MAIALEN PELAEZ LETONA

SAKANAKO EHE

Haize ufadek higatutako harria irudikatu genezake, denborak goroldioz estalia. Barruko ur tanta izoztuek zartarazi duten zulodun harkaitza. Higadura kanpotik nola barrutik baitatorkio gure hizkuntzari, higadura zital eta nekagarria; harria zutik irautera zigortzen duen ditxosozko higadura. Irautera, besterik ez.

Haize-lastera Iruñeko Udalaren Ordenantza berriaren baitan, zirimola Sakanako Lanbide Heziketako institutuan euskaraz ikasi nahi lukeenaren barruan. Tanta bat,

Iruñerriko guraso euskaldun baten buruhaustea; beste tanta bat, Antsoingo haur eskolan atzera; isuna Bilbon, beste bat; Covidaren inguruko jarraibideak gaztelera hutsean eskola orotara, jarria oraingoan. Euskarazko hitzei borrarekin erantzuten dien polizia bat Durangon, ttak, UEMAKO kartel zirrimarratua Etxarrin, ttak, ttak...

Pentsatu dezagun; zenbaterainokoa da hizkuntzaren garrantzia gutako bakoitzarentzat? Prest ote gaude eraso horiei erantzun bat emateko? Edo iraute hutsean indarrak batzen jarraituko ote dugu? Ea higadura higadura bilakatu dezakegun...



OBJEKTIBOTIK



OBJEKTIBOTIK

MAIATZAK 18-24		
1.	rnn	337,72
2.	ihaki	329,13
3.	Haizea	314,95
4.	LoreaGonAl	305,12
5.	414Intx0	302,80
6.	Koko Garalle	301,67
7.	Mikel A	296,02
8.	Sarraste	282,71
9.	ihaki	282,61
10.	NBZ	280,05
11.	Gorka	285,89
12.	Maiansa	285,81
13.	Bagasodola	285,15
14.	Tikus	278,79
15.	Aizea	278,01
16.	Juanolas	277,83
17.	lune	277,34
18.	542576	277,38
19.	Sopro	275,11
20.	elgrens	274,65
21.	Aitziber	274,43
22.	Irens	273,45
23.	Itzalo81	271,37
24.	Lander	268,38
25.	Monika	268,54
26.	Garate	268,51
27.	Idola	268,71

guaixe
SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Miren Alonso Raskin

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Maketatzailea:
lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Ibarreko hainbat erakundek emakumezkoak Lanbide Heziketako ikasketak 'industrialetan' matrikulatzera gonbidatu dituzte.

Emakumezkoak LHn, zergatik ez?

Sakanan dagoen lan eskaerari erantzuna ematen diotenak lanbide teknikoak dira. Lan egin ahal izateko emakumezkoak horietan matrikulatzeak duen garrantzia azpimarratu dute. Lanbide Heziketa institutuan aurrematrikulazioa 5era arte egin daiteke

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

"Legeak esaten du 50 langile baino gehiago dituzten enpresek berdintasun plana izan behar dutela. Han ezarritako akzioak betetzen ez baditugu zigorra jaso dezakegu. Gure ambizio handiko helburua da emakumezkoak kontratatzea; mantenu edo automatizazio graduetakoa, ingeniariak... Guk esperientzia eta ikasketak dituzten langileak behar ditugu eta ez ditugu asko opatzen. Curriculumetan horri erreparatzen diogu. Ez dugu begiratzen ez izen-abizenik ez generorik". Altsasuko Iberica de Suspensiones enpresako lan harremanetarako teknikari Olatz Millan Cuartangoren azalpenak dira goikoak.

"DBHn ez nengoen gustura eta aitak Lanbide Heziketan mekanizatuko erdi zikloa egitera animatu ninduen. Buka-

ztean, lanik ez zegoenez, mantenuko goi zikloa ikasi nuen. Hura bukatuta lanean hasi nintzen eta gaur arte. Mekanizatuko goi zikloa ere egin nuen. Oso ongi egon nintzen Sakana LH institutuan eta beste ikasketaren

bat egitea ez dut baztertzen". Yurena Arizaga Moran mekanizatuko bi enpresetatik eta Altsasuko Kooperatibatik pasa ondoren gaur egun Sunsundegin autobusetako ateari irakazteko eta ateratzeko sistemak muntatzen ari da. Enpresan, soldaduran, emakumezko gehiago daudela jakinarazi digu.

Askatasunez aukeratu

Cederna-Garalurreko Susana Mendinuetak gaztigatu duenez, "jaiotzen garenetik etengabe esaten digute sexu bakoitzak zer duen berezkoa. Familian, ikasketean, gizartean, telebistan, prentsan, liburuek mezu esplizituak edo subliminalak jaurtitzen dituzte, eta horrek pentsarazten digu lanbide guztiak ez direla egokiak emakumeendako. Faktore hori mugatzailea da, gure aukera-sorta ixten duelako,

eta ez gaitzailea, lanbide maskulinizatueta lan egiteko gaitasunik ez izatera eramaten gaituelako".

Horren guztiaren ondorioa da ikasketak bukatu eta beren kategoria profesionalari egokitzen den lanik aurkitzen ez duten neska unibertsitario eta profesionalak daudela Sakanan. Horregatik, Mendinuetak ikasketak aukeratzeko garaian "generoko oztopo mentalak apurtzera gonbidatu" ditu emakumezkoak; "baita zuen lanbide aukerak berez femininoak diren lanbideetara mugatzen dituzten diskurtsoak eta haiek bezala lanean ikusteko gaitasunik gabe uzten gaituztenak ere".

Sakana Lanbide Heziketa institutuko soldadura irakaslea da Berta de Pablo. Berak aitortu duenez, "emakumezkoen matrikulazioa ziklo 'maskulinizatueta' oso txikia da oraindik, enpresek kontratazio-arloan lan handia egiten duten arren. Eta ez dugu ulertzen, ziklo horietan izan ditugun neska gustura egon baitira eta ofizioa gustatu baitzaie". Horregatik, De Pablok emakumezko sakan-darrak animatu ditu "klixehoriek gainditu eta lanbide-heziketan matrikulatu daitezten, batez ere lan irteera handia duten industria ziklo horietan. Horiek bukatu dituzten ikasleak, %100, gaur egun sektorean lanean ari dira edo prestakuntza jasotzen ari dira".

Soldadura irakasleak azaldu duenez, Lanbide Heziketako institutua "zentro dinamikoa" da, "eta etengabe ari gara prestakuntza tekniko, giza prestakuntza eta gure hezkuntza-eskaintza bailarako lan-beharretara eta gizarte-beharretara egokitzen". Enprekin eta ibarreko ikaste-

txekin etengabeko harremana dutela gaineratu du. Baita Berdintasun Legea eguneroko lanean barneratua dutela.

Lege tresnak badaude

Altsasuko Enplegu Agentziako Migel Angel Jorgek datuak eman ondoren esan zuenez, "bistan da emakumei gehienetan aldi baterako kontratuak egiten zaizkiela. Horrek, jakina, prekaritate handia dakar". Gaineratu zuenez, "lanean segitzen dugu pertsona guztiak, haien sexua edozein dela ere, aukera berberak izan ditzaten lanpostu batean hasten direnean".

Sakanako Mankomunitateko presidente David Orozek azpimarratu duenez, "emakumezkoak gure industria sareak eskatzen dituen profil teknikoetan trebatzea ere garrantzitsua da. Alde batetik, bertan ikasiz guztion artean eskualdeko garapenean eragiteko eta, bestetik, emakumeen lan baldintzak hobetzeko". Lan ildo horri segida emateko konpromisoa hartu du Mank-ek eta lan taldea sortzeko gonbidapena egin du.

Altsasuko alkate Javier Ollok aitortu duenez, "badakigu proposamen konplexua dela, eta Sakanako neska eta emakumei ez ezik, lan ingurune osoari egin behar zaiola deia, hau da, enpresaburuei, langilei eta haien lan ordezkariei, bai eta familiei ere; izan ere, beharrezkoa da familiek mezu hori barneratu dezaten eta alde batera utz ditzaten hainbat aurreiritzi eta estereotipo, hain zuzen ere, mutilak nahiz neska genero ikuspegia duten lanbideak aukeratzera eramaten dituztenak". Ollok berdintasun politikek egindako bidea aprobeztatzen jakitea garrantzitsutzat jo du.

Datuak

Langabezia, apirila

- **Gizon** 433, %40,17.
- **Emakume** 645, %59,83.

Kontratuak, 2019

- **Gizon** 4.412, %52,78.
- **Emakume** 3.947, %47,22.

Mugagabe hasi eta hala bihurtutako kontratuak

- **Gizon** 437, %66,01.
- **Emakume** 225, %33,98.

Baimenak, trafiko gestioak eta aseguruak

Orain etxetik ere ikas dezakezu!

Kale Berria, 6 Irurtzun
643 32 11 01 aralarauto@gmail.com

Adinduen egoitzak publiko izateko eskaera

Pandemiak egoitzetan eragindako heriotzak "eskandalua" direla salatu du pentsiodunen mugimenduak. Arrazoi gehiagorekin beharrezkoak jotzen dituzte 1.080 euroko pentsioak eta 1.200 euroko lanbide arteko gutxieneko soldata

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

"Kontzentratzen gara adineko pertsonen ahotsa entzun dadin. Errespetatu gaitzaten, garena bezala, premia material, fisiko eta mentalak dituzten pertsonak. Horiek guztiak hil ala bizikoak dira, gure bizitzaren azken faseari aurre egin ahal izateko". Sakanako Pentsiodunen, Erretiratu eta Adinekoen Koordinadorako Fernando Iriartek esandakoak dira horiek, bi hilabete eta erdiren ondoren, astelehenean pentsio duinen aldeko kontzentrazioa egin ondoren. "Jendea beldur da, horregatik kontzentratu gara lehen ginenen erdia". Zendutako kide Pello Arregi ere gogoan izan zuten.

Salatu zuten Nafarroan 512 pertsona hil dituela gaitzak eta horietatik 422 adinekoen egoitzetan hil direla (maiatzaren 26ko datuak). "Benetako eskandalua da". Adinduen egoitzen egungo egoera posible egin dutenei egotzi diete heriotza horien guztien ardura: gehienak pribatuak dira; osasun arloko murrizketak; langileen ratioak murriztea... "Azken batean, kostuak murrizteko eta diru publikoa enpresa pribatuetara desbideratzeko politiken ondorio dira" Iriarteren iritziz. "Aspaldi salatu dugu egoitza horietan adinekoei zer-nolako tra-



Astelehenean udaletxe parean da hitzordua. 8an, berriz, Zumalakarregi plazan.

tua ematen dieten eta zein baldintzetan dauden. Helburua ez da adinekoen bizitza zaintzea eta luzatzea, baizik eta etekin handiena atera. Horren ondorioak adinekoek sufritzen dituzte". Eta egoitza horiek publikoak izatea aldarrikatu du.

Pentsio duinen aldeko mugimenduaren aldarrikapen nagusien artean daude 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta lanbide arteko gutxieneko soldata 1.200 eurokoa izatea. Aldarrikapen horiei eusten diete. Luis Igeltz, Sasoia, Nafarroako pentsiodunen

eta jubilatuen elkarteko kideak argi du: "koronabirusa pasatu dela eta ekonomiarendako kolpe gogorra izan dela. Horregatik ez ditugu gure aldarrikapenak jaitsi behar. Berdin jarraitu behar dute. Hori oinarritzkoa zen lehen eta hala segitzen du izaten orain ere". Igeltzek gaineratu duenez, "gure borroka indartu, bideratu eta zabaldu behar da krisi honen ondorioak, ekonomia suspertzeko eta sendotzeko beste bide batzuetatik joan behar da. Sekula baino gehiago elkartuta egon behar dugu".

Arduragatik AHT-ko proiektuak geldiaraztea eskatu dute

'Orain ardura' kanpainaren bidez "pertsonen osasuna eta bizi baldintzak" lehenesteko sinadurak biltzen ari dira

SAKANA

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako herri mugimenduen ekimenez, Hego Euskal Herriko gehiengo sindikalak, kolektibo ekologistak, feministak, kultura arlokoak zein auzo eta

herri ekimenetakoak bat egin dute *Orain ardura* manifestuarekin. Han jasotzen denez, "aurrez aurre dugun etorkizun ziur gabe honetan, erakundeei eskatzen diegu egoerak eskatzen duen mailan egotea eta iraganeko aka-

tsak ez daitezela errepikatu. Gure inguruko herrialde gehienetan, diru publikoaren kudeaketak nolabaiteko logika soziala izan duen bitartean, Espainiako estatua aireportuak, autobideak eta, nola ez, milaka milioi balio duten abiadura handiko trenak izateaz harro agertu da". Horregatik, AHTko proiektuak geldiarazteko eskatzen du idatziak. Atxikimenduak emateko orainardura.wordpress.com webgunearen bidez eman daitezke. Sakandarrak hasi dira horretan.

Ettxerat-en kontzentrazioak gaur bueltatuko dira

Gaur, 20:00etan, Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olatzagutian

SAKANA

Bi hilabete eta erdiko etenaren ondoren, euskal preso senideak biltzen dituen Ettxerat elkarteak ostiraletako kontzentrazioei helduko die berriz. Gaur, 20:00etan, Lakuntzan, Arbizun eta Etxarri Aranatz elkarretaratzeak egingo dira. Ettxerat-eko kideek "Espainia eta Frantziako gobernuari eta espetxe administrazioei salbuespena behingoz alde batera uztea" eskatuko diete. Hau da, "gehiago itxaron gabe, gaixo dauden presoak eta 65 urtetik gorakoak askatzea eta euskal preso politiko guztiak Euskal Herrira ekartzea, orain arte egin ez badute ere, krisiaren fase honetan posible eta ezinbestekoa delako".

Ettxerat-etik ere jakinarazi dute Sarearen *Izan Bidea* dinamikarekin bat egiten duela, preso eta iheslarien auziari behin betiko aterabidea emateko pausoak eman, jendartearen aktibazioan sakondu eta herri honen aniztasun eta zabaltasuna batzea helburu duena. "Finean, bakerako eta elkarbizitzarako bidea, konponbidea, guztion artean gauzatu beharrek ibilbide gisa gauzatea da gure asmoa". Sarekideen iritziz, "orain da momentua: datozten urteetan presoaren egoerari aterabidea eman behar diogu. Auzia konpontzeko aukera ireki da eta egun bizi dugun egoerak inoiz baino argiago utzi du espetxeetan bizi den egoera eta salbuespen legediak dakartzen ondorio krudelak. Horretarako, "gizarte aktibazioa handitu eta zabaldu" nahi dituzte, "gobernuek abiatutako bidea finkatu eta oraindik orain irtenbide beharrezko dauden auziak konpontzeko. Horretarako, iraganeko zauriak konpontze bidean ere urratsak emango ditugu". Sarek km kontadorea martxan jarriko du gaur.



Altsasun egindako kontzentrazio bat.

Ruiz presoaren alde mobilizatzen ari dira

Sakanako akanpada eta egun bateko baraualdia hasiko dira gaur 18:00etan Altsasun

SAKANA

Murtzia-II kartzelako erizaindegian gose grebako 19. eguna egin du Patxi Ruizek (aurreneko 12 egunetan ere egarri greba egin zuen). Ruizek espetxean bere integritate fisikoa bermatzea eskatzearekin batera, kartzelarien mehatxu, jipoi eta irainen bukaera eskatu du. Bera eta gainerrako euskal presoak Euskal Herrira lekualdatzea exijitu du.

Hari elkartasuna adierazteko Etxarrin eta Altsasun egunero, 20:00etan, kontzentrazioak egingo dira. Horretaz aparte, Etxarrin hiru pertsona gose greban egon dira aste pasa, eta txandakako 48 orduko baraualdia eginez gazte asanbladako bi kidek lekukoa hartu diete. Bestalde, etxarriar bat gose greba egingo ari da Mexikon hilaren 21etik. Azkenik, Altsasun 24 orduko txandakako baraualdia egingo ari dira egunero lau pertsona. Gaur Sakanako akanpada egunari eta egun bateko baraualdiari hasiera emanen diote 18:00etan. Bi ordu geroago giza katea egingo dute eta 22:30ean zine txiroa izanen da. Larunbatean, berriz, 11:00etan, informazioa banatuko dute. 13:00etan bakarlarrien saioak izanen dira eta, bukatzeko, 18:00etan, manifestazioa eta ekitaldia egingo dituzte.



Munduko Arrozak ekimenak sakandarren arteko zubiak eraikitzen ditu.

Zurumurruek ipuinak besterik ez daitezzen izan

Zurumurruek eta aurreiritziek elkarbizitzari egiten dioten kaltearen inguruan sentsibilizatzeko: ipuin lehiaketa

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak antolatu du I. Zurumurrueen Kontrako Ipuin Laburuen Lehiaketa. Begoña Zestau Baraibar teknikariak sakandarrak gonbidatu ditu "migratu duten pertsonen buruz ditugun ideiak eraldatuko dituzten istorioak sortzera. Aniztasunean elkarbizitzaren alde egiten duen istorio bat eraikitzea azken finean, bestearekin zurrumurruz, aurreiritziz eta estereotipoz libre izanen dena". Horregatik proposatu du testuetan "agertoki berri bat asmatzea, aniztasunak, tratua eta aukera berdintasunak eta bestearekin elkar-bizitzeak dakarzkigun onurak kontatzea".

Anitzartean zerbitzua *Zurumurrueen jasari, baloreak aterki* leloa duen sentsibilizazio kanpaina garatzen ari da azken urteetan eta haren barruan kokatzen da aipatu lehiaketa. Kanpaina horren bidez lau balore sustatzen ari da Sakanako Mankomunitatea: berdintasuna, aniztasuna, errespetua eta diskriminazio eza. Sentsibilizazio kanpaina sakandar guztiei dago bideratua, eta elkarbizitzari modu ezkorrean eragiten dieten jatorri anitzeko pertsonen inguruko zurrumurruek eta estereotipo ezkorrei aurre egin nahi die.

Bere helburua, kulturartekotasuna eta kohesio sozialaren alde, nola bazterkeriaren kontra jardungo duten pertsona zein entitate konprometituek sortzea eta sendotzea da.

Araudia

Anitzartean Zerbitzuak bulkatzen dituen balioetan oinarritutako lanak aurkez daitezke. Idazlanak gehienez ere 4 orrialdeko luzera izan behar dute, Arial 12 letra tipoarekin eta espazio bikoitzean idatzita. Edozein sakandarrek parte har dezake lehiaketan, idazlanak euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztuz. 16 urtetik beharagoen eta 16 urtetik gorakoen mailak daude. Lanak plika sistema erabiliz anitzartean@sakana-mank.eus e-postan aurkeztu beharko dira (pdf dokumentu batean parte hartzailearen datuak eta bestean narrazioa, pdf-aren izenean zehaztuz zein mailetara aurkeztu den lana).

Narrazioak garagarriaren 31ra arte aurkez daitezke. Epaimahai Zestau bera, Youssef Chahor kulturartekotasun birtartekaria eta Zaska, Zurumurrueen kontrako Nafarroako Sareko kide bat izanen dira. Epaimahaiaren erabakia 2020-21eko ikasturtea hasi aurretik jakinaraziko da. Sari banaketa, berriz, Sakanako Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan egiten da, irabazleak bertan direla eta haien lanen irakurketa egiten dutelarik. Hori irailako aurreneko astean izanen da. Guztira dozena bat sari banatuko dira.

Lehiaketak bi maila ditu 16 urtetik beharagoena eta 16 urtetik gorakoena. Bietan bai euskaraz bai gaztelaniaz aurkez daitezke lanak. Maila bakoitzean hiruna sari banatuko dira, dozena bat guztira.

Euskarazko kartel sorta dendari eta ostalariendako

Koronabirusaren ingurukoak, Mank-en webgunean deskargatu daitezke: labur.eus/UchcV

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak koronabirusaren aurkako prebentzio neurrien kartel bereziak egin ditu, denda, ostalaritza establezimenduetan eta zerbitzuetan erabiltzeko. Horretarako, Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkartearekin (SDOZE) elkarlanean landu ditu kartel horiek. Izan ere, elkarteak establezimenduen beharrak identifikatzen eta errotuluak zabalitzen lagundu du. Kartelak euskara hutsean edo elebitan egin dituzte eta Euskara Zerbitzuaren webgunetik deskarga daitezke.

Bakoitzaren bi bertsioekin, 11 kartel sortu dituzte. Gehien bat segurtasun neurriekin edo funtzionamendu berriekin lotura duten kartelak dira. Egoera aldatu denez, establezimenduren batek beste kartel baten premia baldin badu euskara2@sakana-mank.eus helbidean eska dezake. Euskara Zerbitzuak eta SDOZEk mezu positiboa emateko beharra ere ikusi zuten, eta hortik etorri da "Denen arten lortuko dugu!" dioen kartela.

Bai Mank-ek bai SDOZEk "koronabirusak sortutako krisiari bertatik eta bertatikotik aurre egin behar zaiola sinesten" dute. Horregatik, Mank-ek kartelak sortzeko laguntza eskaini die tokiko establezimenduei. Aldi berean, establezimenduei haien komunikazioetan bertako hizkuntza, euskara, erabiltzeko deia egiten die. Euskara gure bereizgarri da eta gertutasuna ematen dio zerbitzuari.

Mank-ek zenbait produktu eta zerbitzu eskaintzen dizkie dohainik establezimenduei: hainbat kartel estandar, doako itzulpen zerbitzua (itzulpenak@sakana-mank.eus, 608 007 802) eta euskarazko errotuluendako dirulaguntza. Informazioa: euskara2@sakana-mank.eus edo 948 464 840.



Uhartearrak jatekoak prestatzen joan den urteko sanjuanetan.

Udalek esana: "aurtengoak ez dira betiko festak izanen"

Udal guztiek jakinarazi dute "udako festa guztiak orain arte ezagutu ditugun moduan ezingo ditugula ospatu"

SAKANA

Sakandar askoren egutegietan bazeuden udaberriaren egun seinatuak zirenak, herriko ospakizunak, COVID-19 gaixotasunak eragindako pandemiagatik etxean pasa behar izan ditugunak. Udaberriaren akaberarekin eta udaren hasierarekin batera herrietako festen txanda etortzen da, baina pandemiak eta hari lotutako osasun larrialdiak hor segitzen du.

Festak direla eta, Sakanako udal guztiek ohar bateratua zabaldu dute. Udal ordezkariak aitortu dutenez, "bizitzak aldatu dizkigun osasun egoera honek luze iraungo duela dirudi". Pandemiak eraginda "ez ohi neurriak hartu ditugu, eta udari begira ere horrela jarraitu beharko dugu. Sakanako herri guztietan udako festa guztiak orain arte ezagutu ditugun moduan ezingo ditugula egin jakinarazten dugu". 15 udal ordezkariak jakinarazi dutenez, "herri bakoitzak erabakiko du festak izatekoak zirene egunetan zer egin. Eta horretarako herri bakoitzak bere bidea egiten du, kultur kontseiluaren edo festa batzordearen bidez, edota eragileekin". Jakina, festak aldatuko direnez, Jaibus zerbitzuak "zentzua galtzen du holako egoera batean". Udaletako ordezkariak berretsi dute osasuna dela garrantzitsuena, elkar zaintzeko unea dela.

Uhartarako festak

Aurten garagartzaroaren 19tik 22ra eta 23an eta 24an ospatzekoak

ziren. Baina udalaren egitaraua bertan behera gelditu da. "Egin beharreko kontratazioak daude, herriko dantzariak entseatu behar duten jakin behar dute, erraldoi konpartsak atera behar duen... Osasun neurriak bermatzen ez badira, ezin da. Horregatik, maiatzaren 18an erabaki genuen bertan behera uztea", esan digu Txomin Uhartek alkateak.

Uhartearrek sanmigela ospatzen dituzte. Aurten irailaren 25etik 27ra eta 29an aurreikusitako udal egitaraua. Baina festak egiten diren edo ez hilabete edo hilabete eta erdi lehenago erabakiko du udalak. Uhartek Arakilen badira herritarrek antolatzen dituzten beste ospakizun batzuk, Artzain Eguna esaterako (agorrilak 30). "Udalak antolatzailerik eskatuko die osasun baldintzak betetzea eta haiek bermatzea", azaldu du alkateak.

Arbizu

Udalak jakinarazi du aurtengo festak antolaketan bertan behera gelditu dela. Hiru arrazoi eman ditu: "oinarrizko osasun arauen jarraipen mugagabeen baldintzak, gainontzeko udalekin egoeraren irakurketa bateratua eta kinto, tabernari eta bi elkarteetako ordezkariekin" izandako harremanak. Hala ere, udalak ez du baztertzeko "aurrerago, agorriean, esaterako, osasun baldintzak nahikoa hobetzen badira hainbat festa-ekimen antolatzea".

Etxarri Aranatz herenegun egiten zen batzarra eta udala q atzo erabakia hartzeko zen.

Nekazaritzaren kultura berreskuratuz

Arakilgo biodibertsitatea eta ekosistema berreskuratzeko proiektua martxan jarri dute Arakilgo Udalak, Sakanako Garapen Agentziak eta Arrea elkarteak. Bertako haziak eta nekazaritza ohiturak berreskuratzea du helburu proiektuak

Erkuden Ruiz Barroso ARAKIL

Garai batean nekazariak etxeko eta bertako haziak landatzen zituzten. Behin uzta jasota, haziak gordetzen zituzten hurrengo saioan berriz landatzeko. Horrela, denborarekin bertakoak diren haziak sortzea lortu zuten. Hazi hauek tokiko ekosistemara egokituta daude: luraren propietate eta klima jakin horretarako garatu dira. Baina industria nekazaritzarekin haziak gordetzeko ohitura galtzen joan zen. Hazi hibridoek garrantzia hartu zuten nekazaritza intentsiboak lekua hartu zuelako. Hortaz, aniztasun handiko nekazaritza batetik monolaborantzara pasa zen eta bertako haziak gordetzeko ohitura autokontsumorako baratzetan eta etxeetan gelditzen zen. Arakilgo Udalak bertako hazi eta espezie horiek berreskuratzeko proiektua martxan jarri du. Bertako biodibertsitatea eta nekazaritza tradizionala balorean jarri nahi du proiektu honen bidez.

Arakilgo Udalaren ardatz nagusietako bat biodibertsitatea dela azaldu du Oihana Olaberria Jaka alkateak. Gainera, ondare materiala eta immateriala berreskuratzeko lanean ari dira aspaldi. "Nekazaritza identitatearen parte da". Gaur egungo nekazaritza intentsiboek lurra-ekin "errespeturik ez" dutela azaldu du Olaberriak, eta beraz "bide batzuk irekitzeko beharra" zegoela.

Sakanako Garapen Agentziako ildo nagusietako bat nekazaritza jasangarria sustatzea da. Arakilgo Udalak bailararen biodibertsitatea berreskuratzeko interesari eta Sakanako Garapen Agentziaren strategiari, Arrea elkarte batu zitzaion. Arrea Nafarroako agroekologia elkar-

te bat da, eta agroekologiaren eta nekazaritza garapen jasangarriaren inguruan lan egiten du. Oihana Olaberria Arakilgo alkatea, Nerea Viana Sakanako Garapen Agentziako elikadura teknikaria eta Esther Montero Arrea elkartearen teknikaria izan dira proiektuaren "talde eragilea".

Koronabirusak sortutako egoerak goitik behera aldatu zuen proiektuaren martxa. Hortaz, urratsak aldatu behar izan dituzten arren, aurreko astean bilera "txiki" bat egin zuten eta lehenengo haziak banatu zituzten. "30 edo 40 pertsona inguruk adierazi dute interesa". Arakilgo hamabi kontzeju bakoitzetik pertsona batek gutxienez proiektuan parte hartuko duela esan du Olaberriak.

Haziak eta fruta arbolak berreskuratzeko eta biderkatzeko proiektua da Arakilgo biodibertsitatea berreskuratzeko proiektua "hitz potoloen" atzean dagoena. Ez hori bakarrik, hazien berreskuratzearekin batera hauek lantzeko eta landatzeko nekazaritzaren tradizioa berreskuratzeko ahalegina egingo dute ere. Bertako nekazaritza eta espezieak balorean jartzeko proiektu oso bat da.

Proiektuaren lehenengo urratsa, beraz, haziak berreskuratzea da. Alde batetik, Arakilgo hamabi kontzejuetatik "mapeo" bat egin dutela azaldu du Olaberriak. Horrela, etxeetan bertako zenbat hazi gordetzen diren jakin ahal izango dute. Gainera, germoplasma bankuetara jo dute Sakanako eta Arakilgo espezieak bilatzera. Madrilen, Zaragozan eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko bankuetan aurkitu dituzte Sakanako eta Arakilgo haziak edo espezieak, esaterako, hamalau sagar mota, horien artean horia

eta goiztiarra; aza kizkurra; Ihabarko neguko letxuga, lekaleak, Hiriberri Arakilgo baba txikiak, Lakuntzako txitxirioak edo babarrun beltzak. Banku publiko hauekin hitzarmenak sinatu dira eta bankuetan kontserbatutako hazi horietako batzuk dagoeneko Arakilgo lurretan landatuta daude. Beste batzuk, babarrunak kasu, "bidean daude". "Berandu goaz baina ahalegin guztiak egingo ditugu hazi horiek biderkatzeko".

Tradizioa

Sakanan, "leku guztietan bezala", nekazaritza anitz zela azaldu du Esther Monterok. Produktuak toki horretara egokituz joan ziren mendeetan zehar. Horrela, herrietako espezieak eta haziak sortu ziren. Nekazaritzaren historian sortutako aniztasun hori nekazaritza biodibertsitatea da.

BERTAKO HAZIAK BERRESKURATZEKO PROIEKTUA JARRI DUTE MARTXAN ARAKILEN

HAINBAT BARATZETAN BERTAKO BARIETATEAK GORDETZEKO OHITURA DA ORAINDIK

ARAKILGO HAZIAK ESPAINIAKO GERMOPLASMA BANKUETAN BILATU DITUZTE


Lurraren erabilpen integral hori desagertu zen industria nekazaritza eta nekazaritzaren espezializazioa areagotu zenean. Nekazari txikiek ere industriara salto egin zuten. Beraz, aniztasunetik monolaborantzara pasa zela azaldu du Monterok: "Espezie eta barietate gutxiago landatzen hasi zen, eta, gainera, espezie horiek hibridoak ziren eta enpresa gutxi batzuen esku zeuden".

Historiaren prozesu horretan mundu osoan "galera handia" egon dela esan du Monterok. Are gehiago herrialde industrialetan non dibertsitatearen galera "larragoa" den. "Biodibertsitatea oinarritzoko da elikatzen gaituelako. Biodibertsitateaz hitz egiten dugunean elikatzea posible egiten duten espeziei buruz ari gara: garia, tomatea, sagarrondoak...". Hala ere, galera horretatik badira oraindik bertako espezieak gordetzen dituzten nekazari txikiak, "haien autokontsumorako baratzetan landatzen dituztenak".

Momentu hau "nahiko kritikoa" dela esan du Monterok. "Bertako haziak eta barietateak gordetzen dituzten pertsonak adinekoak dira. Beste nekazaritza mota bat ezagutu zuten eta haziak gordetzeko eta landatzeko jakintza eta ohitura horiek ezin dira galdu". Izan ere, pertsona hauek hiltzen direnean edo baratza uzten dutenean, haziak eta ohitura galtzen dira: "Ez dute ikusten oso garrantzitsua dela hori oinardekoei uztea. Ez dute esaten: 'hazi hau gorde ezazu nire amonarena zelako'. Hiltzen direnean bertan gelditzen da".

Berreskuratzailea

Bailaran gera daitezkeen haziak berreskuratzea da proiektuaren helburu nagusietako bat. "Zer-





Bertako hazietatik hazitako barazkiak eta fruituak. UTZITAKOA

tarako berreskuratu nahi ditugu? Museo batean jartzeko? Ez. Tokiko nekazaritzara egokitutako espeziak direlako berreskuratu nahi ditugu. Erresilientzia handiagoa dute eta krisi garaietara hobe eranzuten dute". Izurriteei eta gaixotasunei aurre egiteko gaitasun handiago dutela esan du Monterok: "Gure arbasoek tokiko lurrrera eta klimara egokitutako haziak dira. Hori balore gehigarri bat da".

"Nekazaritza kultura da. Hizkuntza bat galtzen den bezala haziak galtzea oso garrantzitsua da. Baina oraindik ez da sentsibilitate hori garatu". Hortaz, bertako haziak nekazaritza eta elikadura aldetik izan dezatenen balorea ez ezik, hirugarren elementu bat gehitzen da. Arakilen herritarrek zer esan handia izango dute zeregin honetan: "Haziak herritarrei eskainiko zaizkie eta gordetzeko eta mantentzeko sare partehartzaile bat garatuko da. Horrela baliabide jasangarri gehiago izango ditugu". Bertako autokontsumorako, merkataritzarako edota gastronomiarako sustatzeko erabiliko dira Arakilen landatutako bertako haziak. Beraz, jateko ohitura galdu diren hainbat produktuek, "baba txikiak, esaterako", bertako gastronomia sustatzeko aukera eman dezakete. "Ezin direlako beste leku batean egon. Sakanakoak dira". Ikerketek diotenez, bertako produktuek nutrizio aldetik zein zaporetik "askoz aberatsagoak" dira. Bio-

ARAKILGO UDALA, SAKANAKO GARAPEN AGENTZIA ETA ARREA ELKARREKIN ARI DIRA

ARAKILGO HAINBAT PERTSONEK PARTE HARTU DUTE HAZIAK GORDETZEKO SAREAN

HURRENGO URRATSAK SENTSIBILIZAZIOA ETA ZABALKUNDEA IZANGO DIRA



Sarean parte hartzeko

Oraindik ere proiektuan eta haziak "gordetzeko eta zaintzeko" sare horretan parte hartzeko aukera dago eta interesa dutenek info@arakil.net edo ester@arrea.net e-postetara mezu bat idatzi behar dute.

dibertsitatea berreskuratzeko proiektuak "osotasun" bat osatzen du: "Bertako nekazaritza eta merkataritza sustatzea eta nekazaritza kulturara eta gastronomiara lotzea".

Hazien bila

Biodibertsitatearen galera ez da gaur egungo arazoa. 1970eko eta 1980eko hamarkadetan konturatu ziren nekazaritzak hartu zuen ibilbideaz eta bertako hazien galeraz, eta Espainiako Nekazaritza Ministerioak barietateen aberastasuna gordetzeko proiektu bat jarri zuen martxan. Beraz, estatu osotik joan ziren bertako haziak hartuz. "Nafarroan eta Sakanan egon ziren ere eta hazi batzuk gorde zituzten". Hazi horiek Madrileko, Zaragozako eta Iruñeko Nafarroako Unibertsitate Publikoan topatu dituzte.

Bankuekin hitzarmena egin dute eta bankuek hazi bakoitzaren lagin bat eman diete. Arakilen interesa duen jendeak hazi horiek landatu ditu dagoeneko eta udazken aldera produktu horiek dastatzeko aukera izango da. "Trebakuntza eta sentsibilizazioa oso garrantzitsuak dira". Beraz, Arakileren itzuli diren lehenengo hazi hauek biderkatuko dira eta horietatik hazi berriak sortuko dira. Lagin bat bankuetara itzuli beharko dute, bertako hazi horiek kontserbatzen jarraitzeko. Ondoren, hazi edo frutarbola bakoitzarekin katalogo bat osatu nahi dute.



Mendiak ikusgarriak daude egunotan, eta jende asko dabilela diote mendizaleek. PEDRO GONZALEZ "BARETA".

Ikusi mendizaleak...

MENDIA Astelehenetik Nafarroako edozein mendira joateko aukera dute mendizale federatuek eta federatu gabekoek. Jende asko dabil mendian, baina Sakanako mendi taldeek momentuz euren egutegia bertan behera utzi behar izan dute garai hoberen esperoan

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

COVID-19 birusak sortutako osasun krisiak eta Espainiako Gobernuak ezarritako alarma egoerak kirol zaletasunak praktikan jartzeko garaian bere aztarna utzi du, baita mendizaletasunarekin ere.

Konfinamendua arintzeko faseak zehaztu zirenetik, maiatzaren 2tik aurrera, banaka kalera atera eta kirola egiteko aukera egon zen. Mendizaleak, gutxika, mendira joaten hasi ziren, baina federatuta egon edo ez, aukerak ezberdinak izan ziren. 1. fasean federatutako mendizaleek Nafarroako edozein mendira joateko aukera zuten bitartean, federatu gabekoek euren herriko mugetan ibili beharra zuten, bi kasuetan bizilekuko ordutegi eta denbora mugak errespetatuz. Horrek federatzeko eskaerak nabarmen igo zituen -15 egunetan 500 lizentzia eskaera izan omen dira, eta Nafarroako Mendi Federazioan lan ederra izan dute eskaerak tramitatzen eta fase bakoitzeko araudiak azaltzen. Astelehenean Nafarroa konfinamendua arintzeko 2. fasean sartu zen eta mendizale guztiek, bai federatuek eta baita federatu gabekoek ere, Na-

farroako edozein menditara joateko aukera dute, gehienez 15 pertsonaz osatutako taldeetan.

Jende asko dabil mendian, Urbasa-Andian, Beriainen eta San Migelen bereziki. San Migel santutegiko taberna-jatetxea ere larunbatean zabaldu zen eta mugimendu gehiago ekarri du horrek. Jendea mendira bai, baina mendi klubek euren irteera egutegia bertan behera utzi behar izan dute, momentuz, egoerak hobera egin arte.

LARRAÑETA MENDI ELKARTEA: "Finalista eguna eta Pirinioetako irteerak bertan behera utzi ditugu"

Etxarri Aranazko Larrañeta mendi taldeko Pedro Gonzalezek adierazi duenez, aurtengo irteerak bertan behera utzi dituzte. "Ekainaren 7an Finalista eguna genuen Auntzetxen. Bestalde, uztailaren

JENDE ASKO DABIL MENDIAN, BAINA MENDI KLUBEN IRTEERAK BERTAN BEHERA GERATU DIRA

4an, 5ean, 18an eta 19an Pirinioetara bi asteburuko irteerak lotuta genituen. Urtero 50 mendizale inguru joaten gara Pirinioetara eta aurten 3 Erregeen Mahaia eta Peña Forca igotzeko asmoa genuen. Bi asteburutarako Lizako aterpean tokia hartuta genuen, baina Lizakoek esan digute, gauzak ongi, ekaina bukaeran edo uztaila hasieran zabalduko dutela, baina aforoaren %50 edo %30-arekin. Datak beteko dira? Guztiendako tokia egongo da? Aforoa dela eta, autobus baten ordez bi behar izatea ere gerta daiteke. Ezjakintasun handia dagoenez, irteerak bertan behera uztea erabaki dugu" azaldu du Gonzalezek. Pirinioetako bi asteburutako irteerak 2021era atzeratu dituzte eta ordu-rako tokia hartu dute.

Irailean egoera nola dagoen aztertuko dute, irailaren 20an txikiekin Lezaunera irteera bat egitea aurreikusia baitute, Zumbeltz Bentatik abiatuta Lezaunera joateko, Basabere abereen baserri eskola bisitatze eta bazkaltzeko. "60-70 lagun elkartu gaitzeko eta ez dakigu egingarria izango den, zenbateko aforoa egongo den... Egoera nola gara-

tzen den ikusiko dugu" gaineratu du Gonzalezek.

Larrañetakoek mendira joaten jarraitzen dute, baina bakoitza bere kabuz edo talde txikietan. "Igandean Maiatzara igo ginen, Bakaikuko Hiru Haitzetatik pasa ginen, ondoren Baizara... jende mordo zegoen. Beste gauzarik egin ezin denez, jende guztia mendira (kar, kar...). Gero Putterrira joan ginen eta lasai ibili ginen" dio mendizaleak. Klubek antolatutako mendi irteerak berreskuratzea kostako dela uste du Larrañetako mendizaleak. "Kosta egingo da, eta asko" dio. Bestalde, azaroaren 1ean Oroganera irteera egitea jaso dago Larrañetako egutegian, eta abenduaren 20an Mendigoizaleen Egunean parte hartzea. Ikusiko da ea posible izango ote den.

ALTSASUKO MENDIGOIZALEAK: "Erkudengo Erromeriarekin eta Bargagaingo Egunarekin zer egin, aurrerago erabakiko dugu" Altsasuko Mendigoizaleak taldeak apirilaren 4rako antolatuta zuen Hiru Mendi Zerrak mendi ibilaldi luzea bertan behera utziz ekin zion konfinamenduari.

"Aurten martxa antolatzeko oso gogotsu geunden, gure martxak 2019ko ibilbide onenaren Zirkuitua Saria jaso zuelako, baina osasun krisiagatik 2021era atzeratu behar izan genuen. Hurrengo urtean gogo gehiagorekin prestatuko dugu" azaldu du Altsasuko Mendigoizaleak taldeko Andres Bengoetxeak. Jakina, horrekin batera, taldeak bertan behera utzi zuen bere mendi irteeren egutegia. "Ez dugu egutegiko finkorik. Gure artean asteburuko plana adosten dugu, baina gure hitzorduak bertan behera geratu dira. Jendea mendira doa, baina bakoitza bere kabuz. Mendira joateak erlaxatu egiten du, eta hori primeran datorkigu" dio Bengoetxeak.

Altsasuko Mendigoizaleak taldearen ohiko bilerak ere bertan behera geratu ziren, baina atzera ere biltzen hasi beharko dutela argi du Bengoetxeak, urteko ekitaldiekin zer egin erabakitzeko. Izan ere, Altsasuko Mendigoizaleak bi irteera berezi antolatzen ditu uztailaren, Erkudengo Erromeriko martxa eta Bargagaingo Eguna. "Aurten uztailaren 12an izango litzateke Erkudengo Erromeria. Guk egun horretan mendi buelta ederra egiten dugu eta Erkuden baselizan despeditzen dugu txangoa" azaldu du mendizaleak. Bestalde, uztailaren hirugarren igandean, uztailaren 19an, 60. Bargagaingo Eguna ospatzekoa da. Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatuta, mendira abiatzen dira altsasuarrak, Bargagaingo gurutzean biltzeko. Meza elizkizuna izaten da eta ondoren auzatea. "Data gerturatu ahala egoera nola dagoen ikusiko dugu bi hitzordu horiek antolatuko ote ditugun erabakitzeko" dio Andres Bengoetxeak.

IRATXO:

"Udako irteerekin zer egin, data gerturatu ahala ikusiko dugu"

Alarma egoeraren aurrean Irurtzungo Iratxo elkarteak hartu beharreko lehen erabakia apirilaren 25erako antolatuta zuen Sakanako Ibilaldia mendi ibilbide luzearekin zer egin izan zen. "Sakanako Ibilaldia ekainaren 22ra atzeratzea aztertu genuen, baina ekainean egoera antzekoa izango zela jabetu ginen eta ez genuen aurrera egin. Martxa udazkenara atzeratzea ere mahai gainean egon zen, baina hala eginez gero, aurtengo martxa bukatu bezain pronto hurren-

goaren prestaketekin hasi behar-ko genuela jabetu ginen, eta, horretaz gain, ideia ere ez genuen begi oso onez ikusten. Hortaz, Sakanako Ibilaldia 2021era atzeratzea erabaki genuen" dio Iratxoko Juan Manuel Morenok.

Iratxok bertan behera utzi du bere urteko irteeren egutegia. "Bakoitza bere kabuz doa orain mendira. Azken 4 urte hauetan abuztuaren azken asteburuan Pirinioetara irteera bat egiten dugu, eta data gerturatu ahala, erabakiko dugu aurrera egiten dugun" gaineratu du Morenok.

Bitartean, martxoko, apirilko eta maiatzeko irteerak bertan behera geratu dira. "Irailaren ondoren antolatuta ditugunak egingarriak izango direla pentsatzen dut, baina data gerturatu ahala ikusiko dugu" nabarmendu du Morenok. Irailaren 20an Lokitz igotzea dute aurreikusia, urriaren 11n Euskal Herriko Erdigunera joatea, urriaren 12an Belate-Berueteko buelta egitea, azaroaren 22an Arakilgo Itzulian parte hartzea, azaroaren 29an Urepel-Mandoegi buelta egitea, abenduaren 20an Aralarko Mendigoizaleen Egunean parte hartzea eta abenduaren 31n urtea Erga gainean despeditzea.

SUTEGI ETA ZABALARTE: Datorrenaren esperoan

Olaztikoko Sutegi mendia taldeak eta Lakuntzako ZabalarTE mendia taldeak ere momentuz bertan behera utzi dituzte bere irteerak. Sutegikoek apirilaren 19an Olazti-Arantzazu eta Araia-Arantzazu mendia buelta egiteko asmoa zuten, eta, horretaz gain, abenduaren 31n urtea Aizkorrin despeditzea aurreikusten dute. Bestalde, Lakuntzako ZabalarTE taldeak martxoaren 28an Mendaurrera irteera zuten antolatuta eta ondoren sagardotegian bazkaltzea aurreikusia zuten. Maiatzaren 9an familia irteera zuten iragarria, eta maiatzaren 17an Sorogainera joatea zen asmoa. Bertan behera gelditu dira guztiak. Baita ekainaren 14rako iragarria zegoen Lakuntza-Aralar Mendia Lasterketa. Udako irteerekin zer egin, datak gerturatu ahala erabakiko dute. Uztaillaren 25rako Deba-Ondarru martxa dute iragarria, irailaren 19an Lakuntza-Goldaratz, urriaren 31n ZabalarTE Eguna, eta abenduaren 31n urtea Lakuntzokuarrin despeditzeko asmoa dugu. Ikusiko da.

"Ea irailaren ondorengo irteerarik egiterik dugun"

PELLO RUIZ BORDEGARAI SAKANAKO MENDIZALEAK TALDEKO PRESIDENTEA

Sakanako Mendizaleak taldeak irailera bitarteko mendi irteerak ez ditu egingo, baina ondorengoak egin ahal izatea espero du taldeko presidente Pello Ruizek

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Mendizaleok nola bizi izan duzue COVID-19 birusak sortutako egoera eta konfinamendua?

Gaizki. Egun batetik bestera etxean gelditu behar horrek bizitza erabat aldatu zuen. Hasiera batean bereziki burua nuen gaizki. Ohituta zaude libre egoten, mendian batetik bestera ibiltzen, eta bat-batean konfinamendu egoeran etxean sartuta egotea gogorra izan zen, egia esan.

Martxoaren 15ean Sakanako Mendizaleak taldekoek irteera zuten antolatuta. Alkiza eta Ernio artean buelta egin eta gero, sagardotegian bazkaltzea zen asmoa. Hain justu alarma egoera ezarri zen orduan.

Dena lotuta genuen: martxako bideak begiratuta, autobusa lotuta eta sagardotegiko tokia hartuta. 35-40 bat pertsona joan behar ginen. Aurreko astearen gure artean hitz egiten hasi ginen, zer egin. 'Nola utziko dugu bertan behera?' zioten batzuk. Baina ordurako koronabirusaren gaia bolo-bolo zebilen eta etor zitekeenaz jabetzen hasi ginen. Bospasei egun lehenago autobusetara, medikuetara, sagardotegira eta toki guztietara hasi nintzen deika. Ez zen erabaki erraza izan, baina azkenean irteera bertan behera uztea erabaki genuen eta egin behar zena egin genuen, bezperan bertan alarma egoera ezarri baitzuten. Mendia hor dago, sagardotegia ere bai eta gauzak aldatzen direnean, betiko martxa berreskuratzean, bueltatuko gara.

Apirilaren 19an Olazti-Arantzazu martxa, apirilaren 25ean Sakanako Ibilaldia eta maiatzaren 17an Sorogainera irteera. Guztiak bertan behera.

Bai. Sorogaingo irteera ere goitik behera prestatuta zegoen: ibilbideak begiratuta, izena emango zutenen kopurua, jate-txeekin harremanetan geunden, baina aurreragorako utzi behar-ko dugu.



Pello Ruiz mendizalea. ARTXIBOA

"ORAIN ARTE MENDIAN INOIZ IKUSI EZ DUDAN JENDE ASKO IKUSI DUT EGUNOTAN MENDIAN"

Ekainaren 21erako Gasteizko Ganalto irteera duzuela dio zuen egutegiak. Ibilbidea egiteko aukera izango duzue?

Gauden egoera kontuan hartuta, uste dut bertan behera dugu. Uztailean eta abuztuaren ez dugu irteerarik antolatzen, norbera bere kabuz aritzen da udan, eta ikusiko dugu irailetik aurreragoko egutegiarekin zer gertatzen den.

Irailaren 13an Larrau-Belagua ibilbidea aurreikusita duzue, Pirinioetako irteera.

Ordura arte denbora asko dagoenez, ikusiko dugu data nola datorren eta zein egoeran gauden. Pirinioetako irteera udako atsedendiaren ondotik lehen irteera da eta jendea joateko irrikitan egoten da. Nolanahi ere, Sakanako Mendizaleak taldeak 2020 urte osoko egutegia prest du, zehaztuta, eta irailaren ondotik

ikusiko dugu nolako egoera dagoen eta ibilbideak egin ahal ditugun, espero dezagun egoera hobean egotea.

Autobuseko aforoa kontuan hartu behar duzue hemendik aurrera. Bai, autobuseko aforoa, jatetxeen aforoa... denetatik. 55 toki dituen autobusa hartzen dugu normalean, 25-30 mendizale inguru ibiltzen garelako, batzuetan gehixeago. Baina aforoa dela eta, ez dakit ziur, baina akaso 70 tokiko autobusa hartu beharko genuke. Eta jatetxeetan berdina, aforoak baldintzatuko digu.

Momentuz zuen irteerak bertan behera geratu dira, baina bitartean mendira joan zaitezke, norberak bere plana eginez eta talde txikitik. Bai, momentuz gehienez 15 pertsona joan gaitzke mendira elkarrekin, distantziak errespetatuz. Eta gu mendira ateratzen gara, jakina. Igandetan bederatzietan elkartzeko gara lagunak, beti bezala mendira joaten garenak, bueltatxo bat ematen dugu eta etxera.

Mendian jende asko omen dabil. Bat-batean mundu guztia al da mendizalea? (Kar, kar...) Orain arte mendian inoiz ikusi ez dudana jende asko

ikusiko dugu nolako egoera dagoen eta ibilbideak egin ahal ditugun, espero dezagun egoera hobean egotea.


Konfinamenduan galdutako ordu horiek aprobetxatzea aterako da orain jendea, korrika batean...

Ba orduan gaizki gabiltza. Nik konfinamenduan nabaritu dudana da denbora mantsoago pasatu dela. Nire irudipena da. Zenbat kostatzen zen eguna pasatzea, eta gero beste egun bat, asteburua ez zen iristen... Normalean asteazkena iristen da eta agur astea, ziztu batean joaten zaigu. Ildo honetan abenduan Mankomunitateak hitzaldi bat antolatu zuen, Lakuntzan, 'slow mountain' fenomenoaren inguruan. Orain horrela esaten zaio, baina finean betiko mendizale-tasunera buelta egitea aldarrikatzen du mugimendu horrek. Hori da betiko mendigoizaleek egin duguna. Nik ez dut sekula korrika egin mendian. Motxilarrekin, ogitartekoekin, hau begiratu, orain gelditu. Horrela ulertzen eta ikusten dut nik mendia. Korrika egiten dutenek, bere gozamenaren izango dute, baina ez dute dena barneratzen. Hori da nire irudipena.

Ea uda ondorengo mendi irteerak egiteko aukera duzuen.

Nik uste moldatuko garela. Nola edo hala. Nolanahi ere, datorrena onartu beharra dago, eta berearekin bizi. Uste dut hori egin behar dugula. Dagoena eta duguna onartu, eta aurrera.

"MARTXOAREN 15EKO IRTEERA BERTAN BEHERA UZTEKO ERABAKIA EZ ZEN ERRAZA IZAN"



UTZITAKOA

"Dantzatzea zoragarria da"

SAIOA IRAIZOZ ERVITI DANTZARIA

Dantzari profesionala bihurtzeko bidea hartu du altsasuarrak eta, orain, Bilboko Dantzerti goi mailako eskolan koreografia eta interpretazio ikasketak egiten ari da

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Dantza egitea gustatzen zaio. Haur bat zenetik gorputzarekin transmititzen hasi zen, eta ez da geldituko bere ametsak bete arte. Saioa Iraizoz Erviti dantzariak Altsasan hasi zuen bidea, eta orain Dantzerti goi mailako dantza eskolan ibilbide honekin jarraitu nahi du. Ikasturte honetan lau urteko ikasketak hasi zituen. Dantzaria izan nahi du. Bere mugimendu indartsuak dagoeneko ezagunak dira Sakanan, baita beste hainbat tokitan ere.

Zergatik dantza ikasi?

Txikitatik dantzatzea gustatu zait. Urteak pasatu ahala geroz eta argiago neukan dantza ikasi nahi nuela eta dantzaz bizi nahi nuela. Betidanik izan dut argi, pila bat gustatzen zaidalako eta dantzatzeak askatasuna ematen didalako. Orduan, 1. batxilergoan ikasten ari nintzeanean, dantza ikasketak zeuden unibertsitateak eta zentroak begiratzen hasi nintzen. Ikasturte honetan, 2019ko ekainean, Dantzertin dantza ikasteko probak egin nituen, eta sartu nintzen. Oso pozik nago.

Beraz, haurra zinenen hasi zinen dantzan?

Bai. Txiki txikitatik. Euskal dantza egiten hasi nintzen, gero soinketa erritmikoa egin nuen eta ondoren Irantzu Gonzalez Dantza Eskolatik pasa nintzen. Hortik dantza mundura sakonago sartu nahi izan nuen.

Dantza ikastea ez da oso ohikoa, B planik ba al zeneukan?

Bai, badaezpada hasieratik izan dut B plan bat. Gurasoek esaten zidaten badaezpada beste aukera bat izateko. Izan ere, ez baninduten dantza eskolan onartzen ezer gabe geldituko nintzateke. Orduan, goi mailako kirol ikasketak egiten, Gasteizen, Dantzertiko probak egin baino lehen. Dantza eskolan hartu nindutenez, goi mailako kirol ikasketak utzi nituen eta dantza ikasten hasi nintzen.

Gurasoek zer esan zizuten?

Pixka bat arraroa da norbaitek dantza ikasi nahi izatea, eta hasieran kosta egin zitzaion. Aitari bereziki barneratzea gehiago kostatu zitzaion, amak lehenago onartu zuen. Beste zerbait ikastea hobe izango zela edo dantzatik ezingo nuela bizi esaten zidaten, eta hasieran gogorra izan zen. Baina azkenean ulertu dute eta orain oso gustura daude. Pila bat laguntzen didate.

Dantzerti goi mailako dantza eskola bat da. Nolako izan zen sarbidea?

Dantzertira sartzeko lehenbizi batxilergoa eskatzen dizute. Derrigorrezkoa da. Bestela heldutasun proba bat egin behar duzu, behintzat oinarri hori izan behar duzu. Gero sarbide probak egin behar dituzu. Hiru atal daude: lehenengo testu iruzkin bat da, proposatutako testua irakurtzen duzu eta galderak erantzun behar dituzu. Testuan oinarritutako hausnarketa bat egin behar duzu ere, esaterako, lehenengo aldian niri galdetu zidaten zer zen dantza niretako edo nola bizi dudana dantza. Hori aukera bat da baina izan daiteke dantzari buruzko galdera orokor bat. Gero proba praktikoak daude eta ballet klase bat eta dantza garaikideko bat jarraitu behar dituzu. Ondoren, koreografia bat prestatu behar duzu, eta, azkenik, inprobisazioa. Abesti bat jartzen dute eta nahi duzuna dantzatu behar duzu.

Zailak izan al ziren?

Oso-oso urduri nengoen eta batzuetan urduritasunak jukutria gaiztoa egiten du. Baina zure egoera berdinean dagoen jende gehiago egoteak, lasaitzen zaitu. Seguruenik zu baino hobe egingo duen norbait egongo da, baita zure mailan dauden pertsonak ere. Epaimahai baten aurrean bakarrik egotea sekulakoa da.

Beste dantza eskoletarako probak egin zenituen?

2018an egin nuen lehenengo aldiz Dantzertin sartzeko proba. Baina 2. batxilergoa erreplikatu behar izan nuenez, eskola gehiago begiratzeko aukera izan nuen eta Madrilera joan nintzen. Bertan hiru eskoletan egin nituen probak: 180 Grados, Victor Ullate eta Maria de Avila kontserbatorioan.

Nola da dantza eskola batean ikastea?

Primerakoa. Oraindik ez naiz guztiz ohitu eta aste honetan klaseak bukatu ditugu. Baina sekulako esperientzia da. Oso desberdina. Jaikitzen naiz, unibertsitateera joaten naiz eta hor ballet edo garaikideko klasearekin hasten gara. Gero, inprobisazio edo errepertorio klasikoko irakasgaiak ditugu. Ondoren, irakasgai teorikoak daude. Praktiko asko lantzen dugu eta gai pila bat ikasten ditugu: dantza nondik datorren, koreografo esanguratsuenak edo urte haue-tan garrantzia izan dutenak,

gaur egun modan dagoena, garaikide hitza nola zabaldu den... Hasi nintzenez konturatu nintzenez nekiela dantzaren jatorriaz ere. Beraz, primeran. Asko sakontzen dugu.

Klasikoa eta garaikidea dantzatzeko duzu, zuk aukeratutako estiloak al dira?

Egiten ari naizen ikasketetan klasikoa eta garaikidea oinarriak dira. Derrigorrezkoak dira. Maria de Avila kontserbatorioan, esaterako, ikasketa planaren arabera espainiar dantza ere derrigorrezkoa da. Dantzertin koreografia eta interpretazioa ikasketen lau urtetan dantza garaikidea eta klasikoa derrigorrezkoak dira. Bigarren mailan hautazkoak aukeratu behar ditugu eta haien artean euskal dantza dago. Euskal Herriko dantza delako. Hor bai sartzen dantza delako. Hor bai sartzen dantza delako. Hor bai sartzen dantza delako.

Nola deskribatuko zenuke zure estiloa?

Ni guztiz garaikidea naiz. Indar handiko estiloa da. Muskulari ere indar handia duten mugimenduak egiten ditut.

Dantza ikasketak egiteak gorputzaren zainketa berezia dakar?

Elikaduraren aldetik, nire kasuan, zainketa berezia egiten dut. Baina ez dakit dantza ikasten duten beste pertsonak egiten duten edo ez. Barazkiak, fruta, fruitu lehorrak eta orokorrean elikadura osasuntsua egiten saiatzen naiz. Irakasleek alkoholik ez edateko, ez erretzeko eta elikadura zainketa esaten digute. Denetarik jateko gomendatzen digute. Nik hori egiten dut normalean, eta ongi jatera ohitzen zara. Baina ez dute ezer berezirik eskatzen; ongi jatea, zure gorputzak behar duena, ez gehiago ez gutxiago.

Martxoaren erdialdetik konfinatuta egon behar izan zara, nolakoak izan dira hilabete hauek?

"GUSTATZEN ZAIDAN ZERBAIT DA, ETA DENA EMANGO DUT"

"JENDEA GUSTATZEN ZAIONA EGITERA ANIMATZEN DUT"

"DANTZAREN MUNDUAN AUKERA ASKO DAUDE"

Telebistan etxean gelditu behar ginela esan zutenean, Altsasura etorri nintzen, Altsasura etorri nintzen. Hasieran berria izan zen guztiendako, bai irakasleendako bai guretako. Klaseak %100ean jarraitu ditugu Internet bidez. Gainera, klasean egongo bagina bezala: 8:30etik 14:15era egunero. Irakasleek klasikoko edo garaikideko ariketak azaltzen dituzte, eta guk jarraitzen ditugu. Gero lan pertsonal asko egin behar izan ditugu eta arratsaldeetan lan teorikoak. Lan pila bat egin dugu eta oraindik egiten jarraitzen dugu. Aste hau azkena izan da eta datorren astean azterketak ditugu. Ez gara gelditu momentu bakar batean ere.

Dantza klaseak areto handi batean egon ohi dira, ispiluaren aurrean. Nola moldatu zara?

Zorte handia izan dut, sofak eta aulkiak kentzen egongela handia dudalako. Leku ederra lortu dut. Balleteko barra edo garaikideko ariketak egiteko nahiko espazioa lortu dut. Baina iszpilu gabe zaila izan da. Izan ere, ispiluan gaizki egin duzuna edo hobetu behar duzuna ikusten duzu. Baina orain, gorputza sentitu behar izan dut eta horren arabera mugitu naiz. Tripa gehiago sartu behar dudana oreka lortzeko edota hankak ongi jartzen kontzientzia izan naiz. Zu eta zure gorputza da, eta ez hainbeste zu ispiluan ikusteak. Orduan, horrek kontzientzia izatera erakutsi dit. Ariketak azkarrago ikasi behar izan ditut ere, bakarrik nagok. Klasean lagunak begiratzeke aukera dago. Hasieran zerbait desberdina eta berria zen, eta gogoekin hasi ginen. Baina egunak pasatzen joan dira eta ez dakizu nola motibatu. Egia esan, bukatzeko gogoz gaude.

Zer moduz joan da ikasketea?

Oso ongi, oso pozik. Hurrengo urteak iristeko gogotsu. Oso-oso gustura egia esan. Lan handia egin dugu, ordu pila bat sartu ditugu, arratsaldeetan entsegu asko egin ditugu... baina oso gustura egon naiz. Gustatzen zaidan zerbait da, eta dena eman behar dut.

Zein lan irteerak ditu dantza ikasketak?

Dantzari guztiok nahi duguna antzoki batean edo agertoki batean dantzatzea eta konpainia batean sartzea da. Hori bai dela nire ametsetako bat: dantza garaikideko konpainia batean sartzea. Baina irteera asko daude:

dantza irakasle, koreografo, konpainia propioa sortu, dantzaren historialaria eta dantzaren inguruko tesi bat egitea... Aurten tesi asko irakurri ditugu eta izugarria da. Konturatzen zara ez dela bakarrik antzoki batean dantza egitea, badaudela egiteko gauza pila bat. Batzuetan lehenengo aukera horrekin itsututa gelditzen gara, eta badaude pentsatzen nituenak baino irtenbide askoz gehiago.

Dagoeneko agertokiak ongi ezagutzen dituzu.

Irantzu Gonzalez Dantza Eskolan Oihu Loreak taldea dugu eta Irantzuri esker leku askotara joan gara lehiatzera. Zortea izan dugu eta sari batzuk irabazi ditugu. Bai guk bai Arima taldeak ere. Irantzuk lehiaketetan Burgoera, Bilbora, Tarragonara eta abar joateko aukera ematea ikaragarria da. Horrela konturatzen zara hemendik kanpo zer dagoen, izan ere, hemen burbuila batean bezala bizi gara eta hemendik kanpo maila izugarria dago. Jendea oso ona da, eta dantzaria izan nahi du ere. Ez zara zu bakarrik. Beraz, bideo asko ikusi behar dituzu, toki batera eta bestera joan behar zara eta panorama ikusi behar duzu. Antzoki askotan egon gara dantzatzeko eta horrek esperientzia handia ematen dizu.

Zer esango zenioke dantzan hasi nahi duen pertsona bati?

Dantzari izan nahi duen edo dantza egin nahi duen edozein pertsona animatu nahi dut. Dantzatzea zoragarria da eta egiteko aukera badute, egiteko esaten diet. Bestela, gogoz geldituko dira. Gainera, edozein adinetan dantzatu daiteke. Jendea dantzatzera eta gustatzen zaiona egitera animatzen dut; amore ez ematera animatzen dut.



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO ©

Heldu da garaia

Konfinamenduko egun hauek pantaila bati begira pasa ditugu; pantaila izan da munduaren leihoa. Errealitatearekin izan dugun lotura handiena hori izan da.

Telelanean ibili garenok, ordenagailuaren pantaila izan da seguruenik gehien erabili duguna. 8 orduz, gutxienez, honen aurrean izan gara. Batzuk hobe moldatu dira eta beste batzuk okerrago, bakoitzaren etxeko egoerak eragin handia izan baitu honetan. Ez da berdina gela bat edukitzea lan eremu moduan erabiltzeko, edo gela hori etengabeko arreta eskatzen duten bi haur txikirekin elkarbanatzea. Telelana gelditzeko etorri den zerbait bada, egoera hauei erreparatzea eta psikologikoki dituen eraginak aztertzea beharrezkoa izango litzateke.

Beste askoren enplegua etenda izan da, ABEeak edo kaleratzeak direla eta. Osasun krisiarekin aurretik denbora librerik ez zuten pertsonak, orain denbora beste gazetan pasatzen ikasi behar izan dute. Friki, hacker eta gamerrek ez bezala, pertsona gehienek aisialdia kalean, tabernan edo mendian pasatzen zuten, eta alarma egoeraren ondoren errotik aldatu behar izan dute. Etxean zitzuten gauzakin pasa behar izan dute itxialdia eta gehienek ere pantaila bat izan dute bidelagun. Ordenagailuen edo mugikorren erabilera

izugarri igo da egun hauetan. Batzuek ikasteko erabili dute denbora, online dauden ikastaroen bitartez, beste batzuek beraien jakituria elkarbanatu dute ikastaro propioak egiten. Plataforma digitalak telesailak irensten pasa dituzte askok. Mugikorraren bidez etxean egindako sormenen eta burutazioen zabalpena sare sozialen bidez nazkatzea arte zabaltzen ibili da jendea asko. Eta kalitate hobereko eta pribatutasuna mantentzeko bideo dei onena non egin aztertzen egon denik ere bada.

Haurrak pantaila bati lotuta izan dira egun guzti hauetan ere, eskolak Internet bidez jarraitu behar izan dituzte, marrakizi bizidunak ikusi edo zunba dantzan ibili dira ia egunero pantailaren aurrean.

Normalean, gailuen erabilera arduratsu baten alde idazten dut zutabe honetan, Kilker Hiztunarena eginez. Baina oraingo honetan arduratsuen pantailen aurretik alde egiteko deia luzatzea da, ahal den heinean noski. Heldu da garaia, atera kalera eta komunikatu zaitezte zuen bizilagun, familia edo kaleko edozein pertsonekin, beti ere osasun neurriak errespetatuz. Egin korrika, poteatu, eguzkitan ibili, irri egin... utzi alde batera pantailatza horiek eta erlaziozatu zaitezte mundu fisikoan. Gure buruek eskertuko dute!



Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU



Zure edari banatzailea!

Hijos de Goikoetxea
Tel. 948 467 317 - 948 562 341 • Geltoki auzoa 11 • ALTSASU

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 29

SAKANA Hileko azken ostiraleko
Euskal presoak Euskal Herrira
kontzentrazioak eta Izan bidea
ekimena.

Lakuntza, Arbizu eta Etxarri
Aranatz.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Patxi Ruizen aldeko
baraualdi akanpada.

24 orduko baraualdi masiboa eta
elkartasun akanpadaren hasiera,
giza katea eta zine txiroa.
18:00etatik aurrera, Foru plazan.

LARUNBATA 30

ALTSASU Patxi Ruizen aldeko
baraualdi akanpada.

Informazio banaketa eta bakarlariak.
11:00etatik aurrera, Foru plazan.

ALTSASU Patxi Ruizen aldeko
manifestazioa.

18:00etan, plazan

ASTELEHENA 1

ALTSASU Pentsio duinen
alde. Sakanako Jubilatuen
eta Pentsiodunen
Kordinakundearen
kontzentrazioa.

11:00etan, Altsasuko udaletxe
parean.


 DUELA 25 URTE...



Urdiain-Altsasuko araztegia martxan

Udalek baimendu ondoren, Nafarroako Gobernuak bi herriendako araztegia egin zuen Urdiainen. Maiatzerako bi hilabete zeramatzan martxan Urdiaingo eta Altsasuko ur zikinak garbitzen dituen araztegia. Bere mekanismoari esker, segunduko 120 litro garbitzen zituen, gau eta egunez, etengabe. Ibaira ur beltzak zuzenean bota beharrean haiek araztegiaren zein bide egiten zuen azaltzeko erreportajea argitaratu zen.

**Irurtzungo, Etxarri
Aranazko, Altsasuko eta
Olaztiko liburutegiak
liburuak itzultzeko
zabaldutuzte**

Lehenengo fasetik liburutegiak zabaltzea aurreikusten bazen ere, Nafarroako liburutegiaren sareak bigarren fasera itxoin du herrialdeko liburutegiak zabaltzeko. Horretarako protokolo jakin bat ezarri dute, eta, beraz, momentuz dokumentuak itzultzeko baino ez dituzte zabaldutuko liburutegiak. Ekainaren 1etik aurrera maileguak egiteko aukera egon da.

Etxean dauden liburutegietako liburuak, dokumentuak, aldizkariak, DVDak zein CDak itzultzeko aukera dago dagoeneko. Atzo zabaldutuzten Nafarroako liburutegiaren sareko liburutegiak, tartean Irurtzungoa, Etxarri Aranazkoa, Altsasuko eta Olaztiko. Urdiaingo liburutegia ere zabaldut dute. Behin liburuak liburutegian



Altsasuko liburutegia. ARTXIBOA

utzi ondoren, 14 eguneko berrogeialdia pasako dute eta desinfektatzeko prozesua egingo zaie. Ondoren, mailegurako prest egongo dira. Maileguak ekainaren 1etik aurrera egin ahalko dira, modu telematikoan egin behar dira -telefonoz, posta elektronikoaz edo Internetko katalogoaren bidez- eta hartzera joateko hitzordua eskatu beharko da. Liburutegiaren ordutegia 14:00etatik 20:00etara da.


**Arakilgo Udalak
peoiak kontratatuko
ditu**

Arakilgo Udalak peoiak aldi baterako kontratatzeko deialdia onartu du. Lehiaketa- oposizio bidez udal lan brigadarako peoiak kontratatuko nahi ditu udalak. Kontratatuko den pertsonen kopurua zerbitzuaren beharren arabera izanen da. Horren arabera ere kontratuak 3 edo 6 hilabeteko luzera izanen dute. Kontratatutako pertsonaren lanaldia, ezarritako mugen barruan, zerbitzuen beharren arabera izanen da eta soldata E mailakoa. Eskatzen den gutxieneko puntuazioa gainditu duten hautagaien zerrenda bat osatuko da, eta udalak erabili ahal izanen du etorkizunean kontratazioak egin ahal izateko.

**Etxarriko Udalak
kontu-hartzaileen
poltsa osatuko du**

Etxarri Aranazko Udalak jakinarazi duenez, etorkizunean, beharren arabera, kontu-hartzaileak kontratatzeko zerrenda osatuko du. Deialdian interesa dutenek bete beharreko baldintza nagusiak dira: adinez nagusia izatea, C-1 euskara maila izatea, lizentziatura eta deialdia aipatzen direnak. Interesdunek eskabidea aurkeztu beharko dute udaletxeko bulegoan, udalaren egoitza elektronikoaren bitartez, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Foru Legean aipatzen diren tokietako edozeinetan. Izena emateko epea heldu den astelehenean, 14:00etan, despidituko da.



ARTXIBOA

Autokarabanendako gunea irekita

Koronabirusak eragindako osasun alarma egoeratik itxi zuen Uharteko Arakilgo Udalak autokarabanendako gunea. Itxesia auzoan dagoen turismo azpiegitura ostegunaz geroztik erabilgarri dago atzera ere. Hala ere, erabiltzaileek derrigorrez hainbat neurri bete behar dituzte, "gure burua zainduz ingurukoak zaindu ditzagun".

**DEKOVEN
NAVARRA**
CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarr.com • www.dekovenavarr.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



OROIGARRIA



Jose Calvo Mendez

II. urteurrena



Beti egongo zara gure bihotzetan.

Zure familia
Ziordia

OROIGARRIA



Yasone Ortega Delgado

I. urteurrena
(Ekainak 2)



Gure artean ez zaitugun arren,
zure maitasunak gure bihotzetan jarraitzen du.

Gurekin egongo zara beti.

Familia
Lakuntza

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAERA

Altsasun, asteburuetan, jende heldua zaintzeko emakume batek bere burua eskaintzen du. Interesatuak deitu 651 472 721 tfnora.

LEHIAKETAK

Etxarri Aranazko abesbatzaren 50. urteurrenaren logotipo lehiaketa: Edonork parte har dezake. DIN A4 formatoan (ordena gailuz edo eskuz eginda), gehienez bi lan aurkez daitezke. Saria 150 euro. Lanak uztailearen 31a baino lehen bidali behar dira. Etxarri Aranazko abesbatza; Maiza kalea 60, 31820 Etxarri Aranatz. Informazio gehiago 628 077 822 tfnoan.

OHARRAK

Odol-emateak Etxarri Arantzen: garagarriaren 3an eta 10ean, 17:00 etatik 20:30 tara.

Irurtzunen, Lakuntzan, Arbizon, Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen eta Olatzagutian ur kontagailua etxe barruan dutenek Sakana-k Mankomunitatearen Ur Zerbitzura bidali behar dute beraien kontsumoaren datua. Horretarako, hots egin 948 464 867 telefonora (4. luzapena), whatsapp mezu bidali 663 399 732 telefono zenbakira edo ura@sakana-mank.eus e-posta helbidera bidali irakurketa. Kontagailuan

komaren aurretik dauden beltzeko zenbakiak dira eman behar direnak.

Egunean Behin jokora jolastu nahi? Euskarazko galde-erantzunen jokoa da Egunean Behin, telefono mugikorreko aplikazioa. Eguneroko 10 galdera erantzun behar dira. Gainera, taldeak sortu daitezke eta ingurukoekin zure jakituria neurtu. Dagoeneko eginak dauden taldeetan sartzeko giltzak behar dira. Honako ibarreko taldeen giltzak: Sakana 2B2160, Lakuntza BC97D3, Bakaiku 1C2051, Urdingo Herria A253A9 Altsasu C5FD3D Ziordian CBBF8. Jokoa-aren laugarren denboraldia garilarren hasierara arte izanen da.

Elkartasun sareak: koronabirusak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko elkartasun sareak eratu dira herrietan. Haiekin harremanetan jartzeko moduak dituzu hurrengoak: Irurtzunen, udaletxeko bulego ordu-tegian 948 500 051 telefonoa, eta hortik kanpo 618 636 199. Etxarri Aranatz hots egin 673 319 557 edo 671 603 012 telefonoetara. Bakaikun 622 268 161 da markatu beharreko telefonoa eta botiketarako 948 563 450 edo Whatsapp bidez 657 702 178. Altsasun 640 044 424 telefonora hots egin edo altsasukogazteasanblada@gmail.com e-postara idatzi daitezke. Lakuntzan 650 866 423 tfnoan edo lakuntzaelkartasun-

sarea@gmail.com e-postan. Arakilen 948 500 101 - 622 297 961 tfnoetan eta info@arakil.net e-postan. Azkenik, Arbizon 675 894 913 tfnora deitu edo idatzi alkatea@arbizu.eus posta elektronikora.

Uharte Arakilgo festetako zapia: Udalak herrian erroldatuta dauden eta joan den urtean jaio ziren umeei festetan zapia banatuko die. Erroldatuta ez dauden familiek eta festetako ttattarra hartzeko interesa dutenek, garagartzaroen 5era arte eman dezakete izena info@uhartearakil.com e-posta helbidera idatziz.

Urteurren aldizkaria: Aurten Altsasuko Gazteria Zerbitzuak 25 urte betetzen ditu eta Intxositapunta gazte guzuek 10 urte. Urteurrena ospatzeko aldizkaria sortuko dute, zerbitzuen historia memoria izanen dena. Baina, aldi berean, Gazteria Zerbitzuak etorkizuan landu beharko dituen esku-hartze ildoan gainean gogoeta egin nahi da. Aldizkarirako iritzi, artikulatu, argazki edo ideiak eman nahi dutenek honako bideak erabili beharko dituzte: intxositapunta@altsasu.net, gazteria@altsasu.net emailletara idatziz, edo 608 617 778 - 948 564 785 telefonoetara deituz. www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Laida Marina Ibaiondo Puertolas**, apirilaren 27an Urdiainen
- **Elian Jose Martinez Reyes**, maiatzaren 13an Etxarri Aranatz
- **Nerea Garro Ortola**, maiatzaren 18an Etxarrenean


HERIOTZAK

- **Mari Carmen Aierbe Irañeta**, maiatzaren 19an Uharte Arakilen
- **Julian Arregi Larunbe**, maiatzaren 22an Lakuntzan
- **Purificacion Arregi Razkin**, maiatzaren 26an Lakuntzan


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 29




Larunbata, 30



Igandea, 31



Astelehena, 1



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskela@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Garbiñe Karasatorre, Ixa Araña, Eneritz Karasatorre, Mattin Altzelai eta Irati Altzelai, Xapateroko terrazan. UTZITAKOA

"Xapateroko bezeroek ongi erantzun dute"

Etxarri Aranazko Xapatero tabernak maiatzaren 11n zabaldu zituen ateak. Garbiñe Karasatorrek urte oso arraroa izango dela uste du, baina bezeroek ongi erantzun dutelako kontentu daudela nabarmendu du

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANAZ

1 COVID-19ak sortutako krisiak ezustean harrapatu zintuzten?

Entzuten genuen birusa Txinan zegoela, baina ez genuen espero horren azkar gurera iritsiko zenik; bat-batean dena aldatu zen.

2 Taberna itxi eta etxera. Nola bizi izan duzue egoera?

Gogorra izan da. Buruari buelta gehiago ematen dizkiozu, ez dakizu zein etorkizun izango duzun, egoera honek noiz arte iraun behar duen... Finean bi familia bizi gara negozio honetatik. Kezkak jarraitzen du, baina egia da ere kontentu gaudela. Bezeroek ongi erantzun dute eta lan egiten ari gara. Ez lehen bezala, baina ari gara, eta pozik gaude.

3 Noiz zabaldu zenuten?

Maiatzaren 11n, 1. fasean, terrazetan lan egiteko baimena eman zutenean. Udalaren laguntza izan dugu; terrazarako behar genuen toki guztia hartzeko esan ziguten, eta terrazatik aurtan ez digutela ezer kobratuko aipatu zuten. Urduri geunden. Dena ahalik eta hoberean egiten saiatzen zara, baina tentsioa hor dago.

4 Tabernan aldaketarik egin behar izan duzue?

Taberna barruan elkarren arteko 2 metroko distantzia bermatzeko mahai bakoitzak bi banku izan beharrean bakarra utzi dugu. Gel hidroalkoholikoa dugu, zapiak banan bana ematen dizkiegu bezeroei eta jakina, maskarak edo pantailak erabili behar ditugu. Bezeroak mahaitik jaso bezain pronto, mahaia eta aulkiak desinfektatu behar ditugu, eta dirua manipulatzeko dugun aldiru eskuak garbitu behar ditugu.

5 Beraz, egoera berriak lan gehiago egitea eskatzen dizue.

Bai. 15 mahai ditugu terrazan, eta uneoro ea norbait zutitu den kontrolatzen egon beharra duzu. Guztia desinfektatu behar da eta horrek lan gehiago dakar.

6 Bezeroek zer diote? Pozik daude taberna zabaldu duzuelako?

Kontentu daude; kalera ateratzeko, lagunekin egiteko eta hitz egiteko gogoia zuten. Herrian mugimendua dago, eta arratsaldean plaza beteta ikusteak alaitasuna ematen du. Bezero gehienek barneratuta dute egoera honetan neurriak hartu behar direla. Jende gaztea lasaiago dago, batzuk lasaiegi, baina jende helduak beldurra du.

7 Festak tabernen diru iturri garrantzitsua dira eta aurtan ez dakigu ospatuko ote dituzuen.

Aurtengoa urte oso arraroa izango da, eta nik uste dut datorren urtean ere kosta egingo dela hau guztia jasotzea. Asteazkenean batzarra deitu zuen udalak, aurtengo festekin zer egingo den erabakitzeke bidean herritarren iritzia ezagutzeko. Zaila da era-

baki bat hartzea, udalendako kristoren marrona da. Ezinezkoa da denon gustua asetzea. Batzuei gutxi egin dela irudituko zaie, beste batzuei gehiegi... denetarako gaude. Dena den, gau giroan 2 metroko distantzia kontrolatzea ezinezkoa da, eta denok dakigu edaten dugunean erabat aldatzen garela. Ea zer erabakitzen den.

8 Garagardo edo kafe batek ez omen du zapore berdina etxean edo tabernan.

(Kar, kar). Horixe ez dela berdina, baina gehienbat konpainia da, batekin hitz egitea, bestearekin egotea... Jende asko tabernara etortzen da bere gauzak kontatzera, eta psikologo puntu hori izaten jakin behar da.

9 Tabernariak kontaktatzen ez duzuenarengatik balio omen duzue gehiago kontaktatzen duzuenarengatik baino.

(Kar, kar...) Bai, ba! Taberna batean gauza asko ikusten dira, baina gauza horiek taberna barruan gelditu behar dira.

10 Xapateron belaunaldi berriak datoz atzetik.

33 urte egin behar ditu tabernak abuztuan. Nik eta Ixak, koinatak, kudeatzen dugu, eta seme-alabak ere laguntzen gaituzte. Ez dakit gero hemen jarraituko duten, baina aukera hori badute.

11 Ibilbide berri guztia ongi joan dadila.

Eguneroko ibiliak erakutsiko du, baina momentuz oso kontentu gaude, ea horrela jarraitzen dugun. Mus Txapelketak aurtan 28 urte betetzen zituen eta 24 bikote zeuden apuntatuta, baina 2021era atzeratu dugu.

ZATOZ GURE GALAXIARA

ZURE IZARRA TOPA DEZAKEZU

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe



DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

018 640 056
 gk@giomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altasu